

ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

www.isei-ivei.net

Ingeles arloaren ebaluazioaren txostena

2. DBH **2001**




EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Argitaraldia: 2004

© ISEI·IVEI-k argitaratua

ISEI·IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

DISEINUA:

Onoff Imagen y Comunicación / www.eonoff.com

PROBAREN EZAUGARRIAK	4
AURREKARIAK	4
IKERKETAREN HELBURUAK	4
ESPARRUAK	4
LAGINA	4
LAGINEKO IKASTETXEAK	4
LAGINEKO IKASLEAK	5
INGELESEKO IRAKASLEAK	5
PROBAREN DESKRIBAPENA	5
EMAITZAK	6
EMAITZA OROKORRAK IET PUNTUAKETATAN	6
IKASLEEN ERRENDIMENDUA ZEHAZTEA	6
GAITASUN-MAILAK DESKRIBAPENA	6
EMAITZAK EDUKI-MOTEN ARABERA	8
EMAITZA OROKORRAK PORTZENTAJETAN	8
ENTZUMENA	9
<i>Entzumen-mailen arabera</i>	9
<i>Erabilitako euskarriaren arabera</i>	9
MINTZAMENA	10
<i>Elkarrekintza</i>	10
<i>Ahoskera</i>	10
<i>Gaitasun gramatikala</i>	11
<i>Hiztegia eta kohesioa</i>	11
<i>Ahozko probako azpi-lagineko ikasleen emaitzak idatzizko proban</i>	11
IRAKURMENA	11
IDAZMENA	12
<i>Idazmen-moduen arabera</i>	12
<i>Jarduera-motaren arabera</i>	12
<i>Idazmeneko item irekiaren azterketa</i>	13
HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA	15
ALDERDI SOZIOKULTURALAK	15
EDUKIEN ARABERAKO EMAITZAK, ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN ARABERA	15
EDUKIEN ARABERAKO EMAITZAK, IKASKUNTZA HASTEN DENEKO ADINAREN ARABERA	15
IKASLEEN GALDERA-SORTEN EMAITZAK	16
IKASKETA-ASMOAK	16
INGELESEKO ETXERAKO LANAK	16
INGELES A IKASGELATIK KANPO PRAKTIKATZEA	16
INGELES A IKASGELAN ERABILTZEA	17
IRAKASLEAK IKASLEEK ESKOLATAN INGELESEZ HITZ EGITEA SUSTATZEN DU	17
IRAKASLEAK IKASLEEN AHALEGINA KONTUAN HARTZEN DU, ETA BERE IRITZIA AINTZAT	
HARTZEN DU IKASGELAN EGITEN DIREN JARDUEREI DAGOKIENEZ	18
IRAKASLEAK AZALDU EGITEN DU, ETA IKASLEEK PARTE HARTU EGITEN DUTE	18

ONDORIOAK	19
BERARIAZKO IKASKUNTZEI BURUZKO ONDORIOAK	19
LAN PROZESUEI BURUZKO ONDORIOAK	19
HAINBAT ITEM	20
ENTZUMENA	20
IRAKURMENA.....	22
IDAZMENA	23
HIZKUNTZARI BURUZKO HAUSNARKETA	24
ALDERDI SOZIOKULTURALAK	25

PROBAREN EZAUGARRIAK

Aurrekariak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, 1999. urtean, Lehen Hezkuntzako 6. mailaren ebaluazioa egin zuen. Ingelesaren arloa urte berean ebaluatu zen, baina beste ikerketa baten barruan. Beste ikerketa horrek "Ingelesaren irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren ebaluazioa" izena zuen, eta emaitza nahiz ondorioak "Lehen Hezkuntzako 6. mailaren ebaluazioa. 1999"¹ dokumentuan daude jasota.

Ingelesaren ebaluazio-ikerketari jarraikortasuna emanez, 2001. urtean Ingelesaren irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren ebaluazioa EAEko DBHko 2. mailan ikerketa gauzatu da. Jarraian, ikerketa horren txostena aurkezten da.

Ikerketaren helburuak

Ikerketa honen helburua da ikasleek, DBH amaieran, Ingelesa irakasgaiaren lortutako oinarritzko gaitasunak, bai eskuratutako komunikazio-mailari dagokionez, eta baita hizkuntzaren ezagutzari dagokionez ere, ezagutzea eta baloratzea. Era berean, atzerriko hizkuntza bat irakasteko-ikasteko prozesutik arlo horretan lortutako emaitzekin zerikusia izan dezaketen faktoreak identifikatzea du xede.

Helburu orokor hori honako berariazko helburuetan bereizten da:

1. Etapako lehenengo zikloaren amaieran ikasleek bereganatutako oinarritzko gaitasunak ezagutzea eta baloratzea, ondoko eduki-bloke hauetan:

- Entzumena
- Mintzamena²
- Irakurmena
- Idazmena
- Hizkuntzari buruzko hausnarketa
- Alderdi soziokulturalak

2. Ingeleseko ezagutzak hobeto barneratzean eta ingelesez komunikatzeko gaitasunean eragina duten faktoreei buruzko datuak lortzea, eta baita ingelesa irakasteko metodo pedagogiko eraginkorrenei buruzkoak ere.

3. Hezkuntza-erkidegoari arlo horren irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzera xedatutako datuak eskaintzea.

Esparruak

Euskal Autonomia Erkidegoa da dagokigun geografia-esparrua. Azterketan kontuan hartu den populazioa, DBHko 2. mailan matrikulatutako ikasle guztiek (hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak izan ezik) eta ikasturte horretako ingeleseko irakasleek osatzen dute.

Lagina

Lagina aukeratzeko jarraian zehazten diren irizpideak hartu ziren kontuan:

- Ikastetxeen geruzapena, gure erkidegoan eskaintzen diren hizkuntza ereduaren arabera (A, B eta D) eta sareen arabera (publikoa eta hitzartua).
- Multzoen bitartez; hasteko, geruzen arabera ikastetxeak ausaz aukeratu ziren, ikastetxe bakoitzeko DBHko ikasleekiko proportzionalak ziren probabilitateekin. Bigarrenik, aurretik aukeraturako ikastetxe bakoitzean, 2. mailako ikasgela bakar bat aukeratu zen ausaz.

Lagineko ikastetxeak

IKASTETXEAK	A eredu	B eredu	D eredu	Guztira
Publikoak	15	14	20	49
Hitzartuak	20	13	16	49
Guztira	35	27	36	98

1. taula. Lagineko ikastetxeen banaketa, sare, maila eta ereduaren arabera

¹ ISEI-IVEI, (2002) *Lehen Hezkuntzako 6. mailaren ebaluazioa*, 1999. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako argitalpenen zerbitzu nagusia. (www.isei-ivei.net webgunean ere kontsulta daiteke).

² Bloke honen barruan ikasleen azpi-lagin bat besterik ez da ebaluatu, ebaluazio-motaren konplexutasuna dela eta.

Lagineko ikasleak

IKASLEAK	A eredia	B eredia	D eredia	Guztira
Publikoak	273	237	369	879
Hitzartuak	533	314	416	1263
Guztira	806	551	785	2142

2. taula. Lagineko ikasleen banaketa, sare, maila eta ereduaren arabera

Ingeleseko irakasleak

IRAKASLEAK	A eredia	B eredia	D eredia	Guztira
Publikoak	14	10	19	43
Hitzartuak	20	12	14	46
Guztira	34	22	33	89

3. taula. Lagineko irakasleen banaketa, sare, maila eta ereduaren arabera

Probaren deskribapena

Probak ulermen-trebetasunak, entzumena eta irakurmena, nahiz ekoizpen-trebetasuna, mintzamina eta idazmena, neurtu ditu. Era berean, hizkuntzari buruzko hausnarketari eta zenbait alderdi soziokulturalei buruzko blokeak ere jorratu dira.

Hiru ebaluazio-proba ezarri ziren:

- *Entzumena*, lau koadernorekin (A, B, C eta D). Item komunak eta horietako bakoitzarentzako berariazko itemak zituzten. Ikastetxe bakoitzean koaderno horietako bat aplikatu zen.
- *Irakurmena eta idazmena*, lau koadernorekin (A, B, C eta D). Item komunak eta horietako bakoitzarentzako berariazko itemak zituzten. Ikastetxe bakoitzean lau koadernoak aplikatu ziren.
- *Mintzamina*: lagineko ikasleen %5,4ari aplikatu zitzaion, eta eredu bakarreko proba zen.

Era berean, ebaluatutako taldeetako ikasleei eta ingeleseko irakasleei galdera-sortak banatu zitzaizkien. Azkenik, ikastetxeak "ikastetxearen fitxa" izeneko galdera-sorta oso laburra bete zuen.

Guztira, lau koaderno desberdinetan banatutako 133 item (mintzamenekoak kontuan hartu gabe) izan dira, hurrengo taulan adierazten den modura.

PROBA EREDUAK	Koaderno guztiekiko komunak	A Koadernoak	B Koadernoak	C Koadernoak	D Koadernoak	Guztira
Entzumena	7	8	8	8	9	40
Irakurmena	6	9	9	9	9	42
Idazmena	5	6	6	6*	5	28
Hizkuntzari buruzko hausnarketa	3	3	3	3	2	14
Alderdi soziokulturak	1	2	2	2	2	9
Guztira	22	28	28	28	27	133

4. taula. Itemen banaketa probako edukien eta ereduaren arabera.

*Item irekiak. Dagokion atalean aztertutakoak.

Ahozko eta idatzizko testuen ulermenarekin erlazionatutako itemak %62 izan dira, eta trebetasun bakoitzak pisu bera du (%31). Idatzizko ekoizpenekin lotutakoak itemen %21 izan dira.

Hizkuntzari buruzko hausnarketari eta alderdi soziokulturalei probaren %10 eta %7 eskaini zaie, hurrenez hurren. Bloke horiek testuinguru batekin ebaluatu dira, testu idatziekin lotutako itemen bidez –idazmena eta irakurmena trebetasunekin bezala–.

Probako koaderno guztietan 22 item komun zeuden, eta gainerakoak berariazkoak ziren koaderno bakoitzarentzat.

Entzumena eta irakurmena, nahiz hizkuntzari buruzko hausnarketa eta beste alderdi soziokulturak ebaluatzeko, aukera anitzeko item itxiak erabili dira. Idazmena eta mintzamina neurtzeko, berriz, item itxiak nahiz irekiak erabili dira.

Ikasleen testuinguruari, hezkuntza-testuinguru orokorrari eta hezkuntza-prozesu eta -inguruneen buruzko informazioa eskuratzeko xedez, ikasleei galdera-sorta bat banatu zaie, eta arlo hori irakasleentzako duten irakasleei beste bat.

EMAITZAK

Emaitza orokorrak IET puntuaketetan

Ikasleen errendimendua zehaztea

Ikasleen errendimendua zehazteko Itema Erantzuteko Teoria (IET) erabili da. Hori erabiltzeko, eskala bat osatu behar da, batez bestekoaren eta desbideraketa tipikoaren arabera ikasleen banakako errendimendua zehazteko, IET ereduak ez baitu hori guztia egiten.

Itema Erantzuteko Teorian oinarritutako ebaluazioen bitartez, ikasleen banakako errendimenduaren emaitzak 0-500 eskala batean aurkezten dira, 250eko batez bestekoarekin eta 50eko desbideraketa tipikoarekin, erreferentziatzat estatu osorako hautatutako lagina hartuz.

Eskala horretan, batez bestekoa zehazteaz gain, batez bestekotik +/- 1etik 4ra desbideraketa tipikoko desberdintasuna duten erreferentzia puntuak ere zehaztu dira, hain zuzen: 50, 100, 150, 200, 250, 300, 350, 400, 450.

Eskalak esanahia lor dezan eta curriculumarekin erlazionatzeko, erreferentzia puntu bakoitzaren kasuan, puntu bakoitzeko banakako errendimenduaren puntuazio bera duten edo gainditzen duten ikasleek ezagutzen duten eduki multzo bat, eta ezagutza eragiketen multzo bat zehaztu dira.

Ikasle batek eskalan lortutako puntuazioak adierazten du ikasle hori bere mailako nahiz bere azpitik dauden mailatako egiteko gehienak egiteko gai dela. Adibidez, IET eskalako 300 mailan kokatzen den norbaitek 300 mailari eta aurrekoari, 250 mailari, dagozkien egitekoak ebazteko aukera handiak ditu, baina ez da izango 350 mailan zehaztutako egiteko gehienak ebazteko gai.

Erlazio hori gauzatzeko erabili den metodoa da, lehenik eta behin, puntu horiei galderak esleitzea, ondoren, galdera horiei behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren ezagutza eta gaitasunak zehaztu ahal izateko.

Item bat erreferentzia-puntu bakoitzarekin erlazionatu da puntu horretako erantzun zuzenen portzentajeak %60 gainditzen badu, eta aurreko erreferentzia-puntuak, gutxienez, esperotako erantzun zuzenen %35 gutxiagoko portzentajea badu.

Gaitasun mailak deskribapena

Maila bakoitzaren baitan maila horretako ikasleek dituzten ezagupen, trebetasun eta gaitasun zehatz batzuk zehazten dira.

250 MAILA

- Grabatutako elkarrizketa bat zein testuingurutan gertatzen den atzematen dute.
- Aisialdiko jarduera baten ahozko deskribapena dagokion irudiarekin erlazionatzen dute.
- Haur baten eguneroko bizitzari buruzko elkarrizketa grabatu bateko berariazko informazioa identifikatzen dute.
- Baiezko esaldiekin idatzitako jarraibide bat jarraibide horren hartzaileekin erlazionatzen dute.
- Idatzitako informazioa berrantolatzen dute deskribatzen den testuingurua ondorioztatzeko.

300 MAILA


- Grabatutako elkarrizketa bat zein lekutan gertatzen den atzematen dute.
- Aholkuak eta gomendioak ematen dituen testu idatzi batetako berariazko informazioa identifikatzen dute.
- Ezezko esaldiekin idatzitako jarraibide idatzi bat jarraibide horren hartzaileekin identifikatzen dute.
- Giza harremani buruzko elkarrizketa idatzi batetako informazioa berrantolatzen dute.
- Aholkuak eta gomendioak ematen dituen testu idatzi batetako informazioa berrantolatzen dute.
- "a" artikulua mugagabea behar bezala erabiltzen dute, singularrean dauden izen zenbakarriekin, testu idatzi bat osatzeko.
- Testu idatzi bat osatzeko hiztegi egokia erabiltzen dute.
- "-ed" partizipio erregularreko forma erabiltzen dute idatzizko testu bat osatzeko.
- "adjektiboa+izena" egitura erabiltzen dute testu idatzi bat osatzeko.
- Ortografiari dagokionez zuzena den jatorrizko testu idatzi bat ekoizten dute emandako informazioa erabiliz.
- Orainaldian idatzitako elkarrizketa bat osatzeko aditz-denbora zuzena identifikatzen dute.
- "are there?" forma inpersonala identifikatzen dute idatzizko elkarrizketa bat osatzeko.
- Ohiko etxebizitza ingeleseko berezko elementuren bat ezagutzen dute.

350 MAILA

- Kopuruari eta ahaidetasunari buruzko berariazko informazioa identifikatzen dute ikus-entzunezko euskarria duen elkarrizketa batetan.
- Kopuruari buruzko informazioa identifikatzen dute grabatutako deskribapen batetan.
- Aholkuak eta gomendioak ematen dituen testu idatzi batetan, bigarren mailako ideia bat identifikatzen dute.
- Orainaldian eta lehenaldian idatzitako testu simple batetako informazioa berrantolatzen dute.
- Idatzizko testu batetako informazioa berrantolatzen dute narratzailearen sentimenduak ondorioztatzeko.
- Testu idatzi batetako ideia nagusia ateratzen dute.
- Lehenaldi erregularra erabiltzen dute idatzizko testu bat osatzeko.
- Orainaldi jarraitua erabiltzen dute ikus-gakoak dituen gutun bat osatzeko.
- Ezezko erantzun laburra identifikatzen dute, elkarrizketa idatzi batetan barne hartutako informazioari buruzko galdera bati erantzuteko.

Datorren grafiko honek aurreko informazioa erakusten du, 50 puntuko IET tarteetan antolatua. Lehendabiziko bi mailai dagozkion zutabeek lagineko ikasleen %5,7 puntuazio baxuenetan kokatzen dute, grafikorekin batera doan portzentaje-taulan ikusi daitekeen bezala. Erdiko zutabeak dira ikasle gehienak hartzen dituztenak, %81,9. Azkeneko zutabeen, berriz, grafikako eskuinaldean, 350 eta 400 puntutara iristen diren ikasleak daude, hots %12,4.

Ingeleseko 2. mailako IET puntuazioa (mailaka)




400 MAILA

- Iritzi bat ondorioztatzen dute, elkarrizketa idatzi batetan barne hartutako informaziotik abiatuta.
- Aditz inpersonal egokia erabiltzen dute ikus-gakoak dituen gutun bat osatzeko.

Hurrengo histogramak ikasleen banaketa, IET puntuaketaren arabera, erakusten du. Gehienak erdiko zutabeetan eta grafikako eskuinaldean, puntuaketa altuenen aldean, aurkitzen dira.

Puntuazio heinak	Portzentajea
100-150	%0,4
150-200	%5,3
200-250	%19,4
250-300	%32,7
300-350	%29,7
350-400	%12,4
Guztira	%100




Desbideraketa tipikoa=49,80

Batez bestekoa=283,4

N=1950,29

N=proba guztietan gutxieneko galdera-kopuru bati erantzuten dion ikasleak. MUPESCE2-k ponderatutako kasuak.



Emaitzak eduki-moten arabera

Emaitza orokorrak portzentajetan


Trebetasun desberdinetarako emaitzak erantzun zuzenen portzentajeen batez bestekoetan ematen dira, beraz, ez dira nahastu behar ziklo honetako curriculumean zehaztutako gaitasunen garapen mailarekin, IET puntuazioetan zehaztua.

Jarraian ikasleek ebaluazioaren xede diren eduki-bloke bakoitzean lortutako emaitzak ematen dira. Bloke bakoitzeko helburuak eta bloke bakoitzari dagozkion itemak ere zehazten dira. Emaitzarik altuena entzumenean lortzen da, %72,41ekin; ondoren alderdi soziokulturalen blokean, %66,10 batekin; irakurmenean, %58,65ekin; hizkuntzari buruzko hausnarketan, %57,78rekin, eta, azkenik, erantzun zuzenen indize baxuena idazmenean lortzen da, %52,77rekin.

Mintzameneko probako emaitzak ezin dira erantzun zuzenen batez besteko portzentajeetan eman, eta ez dira taulan agertzen. Probaren diseinua dela eta, berariazko atal batean aztertzen dira.

EDUKIAK	HELBURUAK	ITEMAK	ERANTZUN ZUZENEN BATEZ BESTEKO PORTZENTAJEA
Ahozko komunikazioaren erabilerak eta formak			
Entzumena E	Komunikazioko ohiko egoerei edo gertaera ezagunei buruz hizlariak edo komunikabideek zuzenean emandako ahozko mezuetakoinformazio orokorra zein berariazko informazioa ulertzea.	Ahozko 9 testuri buruzko 40 item	%72,41
Mintzamena M	Atzerriko hizkuntzan ahozko mezuak ekoiztea, ezagunak diren komunikazio-egoeratan komunikazioa behar bezala gauzatzea lortzeko xedez hizkuntza-baliabideak nahiz hizkuntzazkoak ez diren baliabideak erabiliz, eta ulertzeagatik nahiz ulertarazteagatik interesa eta errespetu-jarrerara azalduz.	Elkarrizketa: 5 item 118 ikaslez osatutako azpi-lagin bati	Ikus 10. orria eta hurrengoak
Idatzizko komunikazioaren erabilerak eta formak			
Irakurmena IR	Ikasleen gaitasunetara eta interesetara egokitutako testu idatziak, eguneroko komunikazio-egoerei buruzkoak, modu ulerkor eta autonomoan irakurtzea, informazio orokorra nahiz berariazko informazioa eskuratuz.	Idatzizko 6 testuri buruzko 42 item	%58,65
Idazmena ID	Atzerriko hizkuntza idatzitako testuak ekoiztea, ezagunak diren komunikazio-egoeratan komunikazioa behar bezala gauzatzea lortzeko xedez hizkuntza-baliabideak nahiz hizkuntzazkoak ez diren baliabideak erabiliz, eta ulertzeagatik nahiz ulertarazteagatik interesa eta errespetu-jarrerara azalduz.	5 ariketatan banatutako 25 item	%52,77
HH	Hizkuntzari buruzko hausnarketa		
	Ikasleek, aurreko probatan, komunikazioa gauzatzeko erabili dituzten hizkuntza-sistemako egitura oinarrikoenen funtzionamenduari buruz hausnartzea, norberaren ekoizpenak hobetzeko xedez	Idatzizko 6 testuri buruzko 14 item	%57,78
ASK	Alderdi soziokulturalak		
	Atzerriko hizkuntzak igortzen duen kulturatik datorren informazioarekiko jarrera harkor eta kritiko batetan hasatzea, eta informazio hori kulturari buruz hausnartzeko erabiltzea.	Idatzizko 5 testuri buruzko 9 item	%66,10

Erantzun zuzenen batez besteko portzentajeak, edukien arabera



Entzumena

Trebetasun hau ebaluatzeko aukera anitzeko 40 item erabili ziren. Item horiek probaren %31 osatzen zuten, eta %72,41eko batez besteko erantzun zuzenen portzentajea eskuratu zen.

Itemak ahozko 2 jarduera-motari buruzkoak ziren: bata bideo euskarrian eta bestea audio euskarrian. Lehenengorako INECSEK editatutako jatorrizko bideo bat erabili zen, bost bat minutuko iraupenekoa, eta "The Hamiltons" izenburupekoa. Ikasleek bideoa bi aldiz ikusi behar zuten, eta, ondoren, guztientzat komunak ziren aukera anitzeko sei item erantzun behar zituzten. Bigarren jardueran, entzumeneko itemak audio euskarrian zeuden ahozko testuei buruzkoak ziren. Audio testu horiek ere INECSEK editatuak ziren. Testuek bost bat minutuko iraupena zuten, eta horietako bakoitza desberdina zen, proba-ereduaren arabera.

Entzumen-mailen arabera

Trebetasun honetako edukiak hiru ulermen-mailatan sailkatu ziren:

Berariazko informazioaren ulermena (Identifikazioa)

Maila honek 31 item barne hartzen ditu. Horietan, ikasleek, idatzizko zenbait balizko erantzunen artean entzundako testu bati buruzko berariazko informazioa atzemateko eta identifikatzeko gaitasunak aplikatu behar zituzten. Erantzun zuzenen batez bestekoa %71koa izan zen.

Loturaren bidezko ulermena


Maila honetan 7 item zeuden. Horietan testua irudi desberdinen artean irudi jakin batekin lotzeko gaitasuna aplikatu behar zen. Era berean, zenbait elkarriketetako informazioak testuinguruari eta lekuari buruzko hizkuntza-gakorekin lotu behar ziren. Erantzun zuzenen batez bestekoa %74koa izan zen.

Berrantolaketa bidezko ulermena

Maila honetan 2 item zeuden. Ikasleak grabaketa batetan entzuten zuen mezua berrantolatu egin behar zuen, aukera desberdinen artean erantzun zuzena hautatu eta, horrela, mezua ulertu zuela erakutsi ahal izateko. Erantzun zuzenen batez besteko portzentajea %83koa izan zen.

Trebetasun honetan eskuratutako erantzun zuzenen batez bestekoak altuak dira; indize txikiena berariazko informazioaren ulermenean eman zen, %71rekin, eta altuena, berriz, berrantolaketa bidezko ulermenean, %83 batekin.

Entzumena ulermen-mailen arabera



Euskarriaren arabera


Entzumeneko edukiak, era berean, bi jarduera-motatan bereizi dira, erabili den euskarriaren arabera:

Bideo euskarria duen jarduera

Ikasleek bideoa bi aldiz ikusi, eta ondoren aipatutako funtsezko gaitasunak (atzematea eta identifikatzea, lotzea eta/edo berrantolatzea) aplikatu behar zituzten, aukera anitzeko 7 itemi erantzuteko.

Audio euskarria duen jarduera

Ikasleek, audio/kasetetan grabatutako testuak bi aldiz entzun ondoren, aipatutako funtsezko gaitasunak (atzematea eta identifikatzea, lotzea eta/edo berrantolatzea) aplikatu behar zituzten, aukera anitzeko 33 itemi erantzuteko. 33 item horietako 7 ahozko testu informatibo narratiboei buruzkoak ziren, eta gainerako 26ak elkarriketa-formako ahozko testuei buruzkoak.



Mintzamena

Mintzamena ebaluatzeko hamabi ikastetxetako 118 ikaslez osatutako azpi-lagin bat erabili zen. Horiek EAEko lagin osoaren %5,4 osatzen dute. Proba bere osotasunean hartuta, trebetasun honek probaren %20 osatzen zuen.

Proba egiteko, bi pertsonen ikasle hautatuei elkarrizketa bat egiten zieten. Elkarrizketa horretan, ikasle bakoitzari bost galdera egin zitzaizkion, hiri baten marrazkian oinarrituta; item horietako bi lekuei eta horiek marrazkian zuten kokalekuari buruzkoak, eta eguraldiari nahiz orduari buruzkoak ziren. Gainerako hiru itemak familiari, eskolari eta oporrei buruzkoak ziren. Elkarrizketa egin aurretik, ebaluatzaileek trebakuntza-saio batetan parte hartu zuten. Saio horretan jarduketa-ildo komunak ezarri ziren. Zuzenketa-praktikak ere egin ziren, pilotaje modura, DBHko ikasleekin grabatutako bideo batetan oinarrituta, eman zitzaizkien ebaluazio-irizpideetatik egiten zituzten balorazioan bateratzeko xedez.

Ikasleen mintzamen-gaitasuna elkarrizketan bertan ebaluatu zen, honako alderdi hauek Oti 5 puntura bitartean baloratuz: *elkarrekintza*, *ahoskera*, *gaitasun gramatikala* eta *hiztegia*, eta *kohesioa*.

Jarraian *mintzameneko* proban ebaluatutako alderdiak deskribatzen dira, eta ikasleek horietako bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera grafikoak azaltzen dira.

Elkarrekintza


Alderdi honi dagokionez, ikasleak elkarrizketa-egilearekin elkarrizketa mantentzeko erakusten zuen gaitasuna baloratu zen; komunikazio-arazoak ebazteko, zehazteko eta argitzeko ingelesa erabiltzea, hizkuntzakakoak ez diren estrategiak erabiltzea, eta berbaldiaren koherentzia eta jarria. Alderdi honetan, 5 puntutik, 2,78 puntuko batez bestekoa lortu zen.

Proba egin zuten ikasleen %34k 4 edo 5 puntu lortu zituzten. Talde horrek arazorik gabe jarraitzen du elkarrizketa solaskidearekin, eta ingelesa erabiltzen du azalpenak eskatzeko edo komunikazio-arazoak ebazteko. Hizkuntzakakoak ez diren estrategiak ere erabiltzen ditu, hizketaldi koherentea mantentzen du eta ideiak eta iritziak erositasunez eta naturaltasunez azaltzen ditu.

%42k 2 edo 3 puntu lortu dituzte *elkarrekintza*n. Talde horrek zailtasunak ditu solaskideari ulertzeko edo/eta azalpenak eskatzeko eta ulermen nahiz adierazpenari dagozkion komunikazio-arazoak ebaztean ingelesa erabiltzeko. Gainera, ulermena errazten duten eta hizkuntzakakoak ez diren estrategiak erabiltzeko gaitasun gutxi erakusten du. Hizketaldia koherentea da, orokorrean, baina ez da guztiz egokia komunikazio-egoera horretarako. Ideiak eta iritziak azaltzeko ahaleginak egin behar ditu, eta horrek elkarrizketaren eritmoan eragina du.

Ikasleen %24k puntu 1 lortu dute alderdi honetan. Talde horrek zailtasun handiak ditu solaskidearekin elkarrizketa mantentzeko, eta ama hizkuntza erabiltzen du azalpenak eskatzeko eta ulermen nahiz adierazpenari dagozkion komunikazio-arazoak ebazteko. Ulermena errazten duten eta hizkuntzakakoak ez diren estrategiak erabiltzeko gaitasunik ez du. Hizketaldia solaskideari labur erantzutean datza, eta, askotan, desegokia da komunikazio-egoerarekiko. Ideiak azaltzeko zailtasun handiak ditu.


Ikasleen banaketa *Elkarrekintza*n eskuratutako puntuazioaren arabera %



Ahoskera

Atal honetan ikasleek hizkuntzara eta komunikazio-testuingurura egokitutako azentu eta intonazioa erabiliz ulertzera emateko duten gaitasuna ebaluatu zen. Alderdi honetan lortutako batez bestekoa 5 puntutik 2,73koa da.

Ikasleen banaketa *Ahoskeran*n eskuratutako puntuazioaren arabera %



Ikasleen %33k 4 edo 5 puntu lortu dituzte. Talde horrek mezu ulergarriak ekoizten ditu, eta azentu nahiz intonazio egokiak erabiltzen ditu. Ebaluatu diren ikasleen %47k 2 edo 3 puntu lortu ditu. Mezu ulergarriak ekoizten dituzte, baina solaskideak ahalegina egin behar du azentua eta intonazioa ulertzeko.

%20k puntu bakarra dute ahoskeran. Solaskideak ahalegin handia egin behar du mezua ulertzeko eta elkarren arteko komunikazioa ahalbidetzeko.

Gaitasun gramatikala


Atal honetan ikasleak hizkuntza-egitura desberdinak erabiltzeko duen gaitasuna neurtzen da. Atal honetan lortutako batez bestekoa 5 puntutik 2,36koa da.

Ikasleen %25ek 4 edo 5 puntu lortu dituzte. Talde horrek egitura sintaktikoen eta elementu morfologikoen aukera zabala erabiltzen du, akats sistematikorik gabe.

%47k 2 edo 3 puntu lortu dituzte. Talde honek egitura sintaktikoen eta elementu morfologikoen aukera zabala erabiltzen du, baina zenbait akats egiten dituzte.

%28k puntu bakarra eskuratu dute. Ikasle horiek egitura sintaktikoen eta elementu morfologikoen aukera mugatu bat erabiltzen dute, eta gainera akats ugari egiten dituzte.

Ikasleen banaketa *Gaitasun gramatikalan* eskuraturako puntuazioaren arabera %



Hiztegia eta kohesioa


Arlo honetan ikasleek komunikazio-egoerara egokitutako hiztegia erabiltzeko duten gaitasuna ebaluatzen da. Arlo honetan lortutako batez bestekoa 5 puntutik 2,46 puntukoa da.

Ikasleen %28k 4 edo 5 puntu eskuratu dituzte. Talde horrek hiztegi anitza eta komunikazio-egoerara egokitutakoa erabiltzen du. Hori dela eta, zailtasunik gabe espresatzen da, nahiz eta kohesio-maila ertaina izan.

%43ak 2 edo 3 puntu lortu dituzte. Hiztegi anitza eta, orokorrean, egokia erabiltzen dute. Hori dela eta, zailtasunik gabe espresatzen dira, baina hiztegi mugatua erabiltzen dute.

%29k puntu bakarra lortu dute. Ikasle horiek hiztegi oso mugatua erabiltzen dute, eta beren iritzia azaltzeko esaldi motz eta kohesionatu gabeak erabili ahal izaten dituzte bakarrik.


Ikasleen banaketa *Hiztegia eta kohesioa* alorrean lortutako puntuazioaren arabera, %



Ahozko probako azpi-lagineko ikasleen emaitzak idatzizko proban

Ahozko probako azpi-laginaren eta idatzizko probako laginaren arteko erlazioa ikusteko xedez, azken proba horretan ahozko proba egin zuten ikasleek izandako errendimendua kalkulatu da. IET eskalako 284 puntu eskuratu dituzte. Puntuazio hori lagin osoaren batez bestekoaren (283) oso antzekoa da. Ikasle horien erantzun zuzenen proportzioaren eta ahozko proba osoko puntuazioaren arteko erlazioa ere neurtu zen, 0,737 puntuko Pearson korrelazioa eskuratu.

Ahozko proba egin duen azpi-laginaren emaitzak idatzizko proban



Irakurmena

Trebetasun hori neurtzeko aukera anitzeko 42 item erabili ziren. Item horiek probaren %31 osatzen dute, eta lortutako erantzun zuzenen batez besteko portzentajea %58,65koa da.

Itemak narrazio modura idatzitako bost testutan eta elkarrizketa moduko testu batean oinarrituta egin ziren. Gainera, aipatzen zuteneko testu-motaren arabera eta ulermen-mailaren arabera sailkatu ziren:

Berariazko informazioaren ulermena

Lehenengo maila honetan 3 item daude, eta horietan ikasleak balizko erantzun desberdinen artean informazio zuzena atzemateko eta identifikatzeko funtsezko gaitasunak aplikatu behar zituzten.

Inferentziaren bidezko ulermena

Maila honetan 2 item daude. Horietan, ikasleek, aukera desberdinen artean, izenburu bat identifikatu behar zuten idatzitako elkarrizketaren edukiaren arabera, eta testu-mota zehaztu behar zuten aurretiazko ezagutzetan oinarrituta.

Loturaren bidezko ulermena


Maila honetan 5 item zeuden. Horietan, kartel-modura idatzitako jarraibideak horien hartzaileekin lotu behar zituzten ikasleek.

Berrantolatetaren bidezko ulermena

Maila honetan 32 item zeuden, eta horietan ikasleok mezua berrantolatu egin behar zuten, aukera desberdinen artean hautatu eta ulertzen zutela erakusteko.

Erantzun zuzenen batez besteko portzentaje altuena *loturaren bidezko* ulermenean eskuratu da, %75 batekin.

Zailtasun handiena, berriz, *inferentziaren bidezko* ulermena mailan topatu dute ikasleek, eta erantzun zuzenen %41eko batez bestekoa eskuratu dute bertan.

Emaitzak irakurmenean ulermen-mailen arabera**Idazmena**

Trebetasun honi dagokionez, 28 item egin ziren. Horiek probaren %15 osatzen dute, eta erantzun zuzenen batez besteko portzentajea %52,77koa izan da.

Item itxiak, irekiak ereduarekin eta erdi-irekiak planteatu ziren. Kasu batzuetan, ikasleek testu bat ekoiztu behar zuten idatzizko informazio baten arabera, eta, besteetan, berriz, hizkuntza-gakoak eta ikus-gakoak erabiliz osatu behar ziren testuak. Trebetasun honetan barne hartutako 6 item irekiak ondoko atalean aztertuko dira.

Idazmena baloratzeko erabilitako itemak erdi-irekiak eta irekiak izan ziren. Erdi-irekietan, ikasleek idatzizko testua osatu behar zituzten, ikuslaguntza edo -gakoen bidez ematen zitzairen informazioa transferituz.

Ariketa irekian, berriz, ikasleek deskribapen-testu bat idatzi behar zuten, eredu baten laguntzaz. Testua baloratzekoan hurrengo irizpide hauek hartu ziren kontuan: *zuzentasuna* neurtzeko ortografia eta gaitasun gramatikala hartu ziren kontuan, eta *egokitasuna* neurtzeko hiztegiaren aberastasuna, hizkuntzaren aniztasuna eta sormena edo orijinaltasuna.

Idazmeneko edukiak baloratzeko honako bi irizpide hauek hartu dira aintzat: idazmenaren formak eta jarduera-mota.

Idazmen-moduen arabera

Ekoizpenen *idazmen-moduak* kontuan hartuz, *zuzentasuna* eta *egokitasuna* ebaluatu dira:


Zuzentasuna.

Alderdi hau baloratzeko 24 item erabili ziren. Horietako 2 irekiak ziren. Ortografiaren eta gramatikaren (elementu morfologiko eta sintaktikoak) erabilera zuzenari buruzkoak dira.

Egokitasuna.

Alderdi hori baloratzeko 4 item ireki erabili ziren. Ikasleek testuaren edukietara egokitutako hiztegia erabiltzeko gaitasuna erakutsi behar zuten (*egokitasun* semantikoa).

Egokitasuna da *idazmena* trebetasunetik emaitza hoberenak lortzen dituen alderdia, erantzun zuzenen %71ko batez bestekoarekin. *Zuzentasunean*, berriz, ikasleek zailtasun handiagoak dituzte, eta %52ko batez bestekoa lortu dute.

Idazmeneko emaitzak idazmen-formen arabera**Jarduera-motaren arabera**

Jarduera-motaren arabera, honako eduki hauek bereizten dira *idazmenean*: informazio-transferentzian oinarrituz edota ikusgakoen laguntzaz egin beharreko ekoizpenak.

Informazio-transferentzian oinarritutako ekoizpena


17 item erdi-ireki eta 6 item ireki zituen. Horietan, ikasleek ematen zitzaion informazio idatziaren arabera testu bat ekoiztu behar zuten. Atal honetako item erdi-irekietan, ikasleek ekoizpen gidatu bat gauzatzen zuten, informazio-transferentziaren bidez testu idatziak osatuz. Ariketa irekian, berriz, ikasleek deskribapen-testu bat osatu behar zuten, eredu baten laguntzaz.

Ikus-gakoez lagundutako ekoizpena

5 item horietan, ikasleek testu bat osatu behar zuten ikus-gakoetan oinarrituz.

Idazmeneko emaitzak aldatu egiten dira batez besteko orokorrari (%53) dagokionez: ikasleari informazio-transferentziaren bidezko ekoizpena eskatzen bazaio, erantzun zuzenen batez bestekoa %54koa da; ikus-gakoez lagundutako ekoizpen bat eskatzen bazaio, berriz, erantzun zuzenen batez bestekoa trebetasun honetako batez besteko orokorra baino baxuagoa da, hots, %49koa da.

Idazmeneko emaitzak jarduera-motaren arabera



Idazmeneko item irekiaren azterketa

Probako C koadernoan idazmeneko item ireki bat planteatu zen. Jarduera horretan Hans Ober izeneko mutil bati buruzko paragrafo bat idaztea eskatzen zitzaion ikasleari. Paragrafo hori idazteko informazioa eredu batetik eta datuen fitxa batetik hartu behar zen.

Jarduera honela aurkeztu zen:


Irakurri zer den Valerieri egitea gustatzen zaiona, eta ondoren idatzi Hans Oberri buruzko paragrafo bat azpiko koadroan dauden datuak erabiliz.

Valerie Fourneau from Paris says: 'In my free time, when the weather is nice, I like going to the beach with my friends. I also like cycling, playing basketball, or just walking. When it rains I go to the cinema, listen to good music or play the piano'.

- Name:** Hans Ober
- Country:** Germany
- Age:** 14
- Sports:** Handball (Saturday), play chess, go swimming
- Likes:** play with friends, go to the cinema, music
- Dislikes:** running, bad weather


Jarduera hau zuzentzeko honako irizpide hauek hartu ziren kontuan: hitz-kopurua guztira, zuzentasun ortografikoa, zuzentasun gramatikala, balorazio orokorra, sormena eta hizkuntza-aberastasuna.

Hitz-kopurua guztira	Baliozko portzentajea
10 arte	2,0
11 eta 20 bitartean	2,1
21 eta 30 bitartean	11,8
30 baino gehiago	70,6
Ed/Ee	13,5




Zuzentasun ortografikoa

Akats-kopurua	Baliozko portzentajea
10 edo gehiago	2,7
6 eta 9 bitartean	6,5
2 eta 5 bitartean	29,7
Akats bat edo batere ez	48,2
Ed/Ee	13,5




Zuzentasun gramatikala

Akats-kopurua	Baliozko portzentajea
Testu laburregia baloratu ahal izateko (20 hitz baino gutxiago)	4,1
Ikasleak akats ugari egiten ditu sintaxiari eta morfologiari dagokionez	32
Ikasleak zenbait akats egiten ditu, baina horrek ez du testuaren ulergarritasunean eraginik	44,2
Ikasleak ez du akatsik egiten	6,2
Ed/Ee	13,5




Balorazio orokorra


Ulegarritasuna	Baliozko portzentajea
Testua laburregia da baloratu ahal izateko (20 hitz baino gutxiago)	4,1
Testua ez da ulergarria lehendabiziko irakurketan, eta koherentzia-arazoak ditu	22,2
Testua ulergarria da lehendabiziko irakurketan, eta proposatzen den komunikazio-egoerarako egokia da, nahiz eta koherentzia arazo batzuk dituen	42,9
Testua koherentea, egokia eta lehendabiziko irakurketan ulergarria da	17,3
Ed/Ee	13,5

**Sormena/orijinaltasuna**

Sormena-orijinaltasuna	Baliozko portzentajea
Ikasleak ereduari jarraitzen dio, informazioa partzialki transferituz eta elementu berriak barne hartu gabe	16,9
Ikasleak ereduari jarraitzen dio, informazioa transferituz baina elementu berriak barne hartu gabe	49,6
Ikasleak testu bat eratzen du emandako informazioa erabiliz eta elementu berriak barne hartuz	20,0
Ed/Ee	13,5

**Hizkuntza/aberastasuna**

Aberastasuna	Baliozko portzentajea
Testu laburregia baloratu ahal izateko (20 hitz baino gutxiago)	4,1
Egiturak errepikatzen ditu eta hiztegi pobre eta/edo testuinguruarekiko desegokia erabiltzen du	27,3
Egitura-sorta eta hiztegi mugatu bat erabiltzen ditu, nahiz eta testuinguruarekiko egokiak diren	41,2
Egitura-sorta eta hiztegi zabala erabiltzen ditu, eta testuinguruarekiko egokiak dira	13,9
Ed/Ee	13,5



Aurreko taulatan ikusi daiteke **testuaren hedadurari** dagokionez, ikasleen %71k 30 hitz baino gehiagoko testu bat ekoiztu dezakeela, eta proba egin zuten ikasleen %13,5ek bakarrik uzten dute ariketa zurian.

Zuzentasun ortografikoari dagokionez, ikasleen %48k akats bakarria egiten du edo ez du akatsik egiten, eta %30ak 2tik 5 akatsera egiten ditu. %9ak bakarrik egiten ditu 6 akats edo gehiago.

Zuzentasun gramatikalari dagokionez, testua idaztean ikasleek akatsak egiten dituzte sintaxian eta morfologian. %44k zenbait akats egiten ditu, baina horiek ez dute testuaren ulergarritasuna eragozten; %32k akats ugari egiten ditu sintaxiari eta morfologiari dagokionez; eta %6k ez du akatsik egiten alderdi horri dagokionez.

Ikasleen %60k **lehendabiziko irakurraldian ulertu daitezkeen** testuak ekoizten ditu. Horietatik %43k proposatzen den komunikazio-egoerara egokitutako testuak idazten dituzte, nahiz eta koherentzia-arazo batzuk izan; %17ak testu koherenteak, egoerara egokituak, idazten ditu.

Ikasleen %87k **eredutik abiatutako testuak idazten ditu**, ematen zaion informazioa transferituz. Horietatik %17k emandako informazioa partzialki transferitzen du, eta ez du elementu berriak gehitzen; %50ak informazio guztia transferitzen du, eta, gainera, elementu berriak gehitzen ditu.


Hizkuntza-aberastasunari dagokionez, %27ak egiturak errepi-katzen ditu, eta hiztegi mugatua edo testuingurura egokitu gabea erabiltzen ditu. %41ak egitura eta hiztegi mugatuak erabiltzen ditu, baina horiek testuingurura egokituak dira. %14ak egitura eta hiztegi aukera zabalak erabiltzen ditu, eta gainera testuingurura egokituak dira.

Hizkuntzari buruzko hausnarketa

Eduki-bloke hori aukera anitzeko eta informazio-transferentziako 14 itemen bidez ebaluatu zen. Horretarako alderdi morfologiko, semantiko eta sintaktikoak aipatzen zituzten sei testu idatzi erabili ziren. Bloke honek proba osoaren %10 osatzen zuen, eta bertan erantzun zuzenen %57,78ko batez besteko portzentajea lortu zen.

Hizkuntzari buruzko hausnarketaren edukiak kontzeptu-mota desberdinak aplikatzearen eragiketa kognitiboaren arabera sailkatu eta baloratu dira: *morfologikoa* 3 itemekin, *semantikoak* 2 itemekin eta *sintaktikoak* 9 itemekin. Ikasleek zailtasun handiena *kontzeptu semantikoak* aplikatzeari zegokion eragiketan aurkitu zuten, erantzun zuzenen %48ko portzentajearekin. Zailtasun gutxieneko eragiketa, berriz, *kontzeptu morfologikoa* aplikatze-ari zegokiona izan da, %66ko batez bestekoarekin.

Hizkuntzari buruzko hausnarketako emaitzak, aplikatutako kontzeptuaren arabera




Alderdi soziokulturalak

Eduki-bloke honetan erantzun anitzeko 9 item formulatu ziren. Atal honek probaren %5 osatu zuen, eta bertan %66,10eko erantzun zuzenen portzentajea eskuratu zen.

Edukiak *ezagutu* eta *inferitu* eragiketa kognitiboaren arabera sailkatu eta baloratu dira. *Ezagutu* eragiketan, ikasleek beren ezagutzak aplikatu behar zituzten gizarte eta kultura anglosaxoiaren alderdi jakinei buruzko 8 galderei erantzun ahal izateko. Galdera horiek, adibidez, hiriei, kirolei edo ikasketei buruzkoak ziren. *Inferitu* eragiketa, berriz, probako galdera bakar batetan azaltzen zen. Bertan, ikasleak bere kulturari buruz zituen ezagutzak kultura anglosaxoiari buruz zituenekin lotzeko gaitasuna erakutsi behar zuen.


Alderdi soziokulturaletako emaitzak eragiketa kognitiboaren arabera



Edukien arabeko emaitzak, eskolaz kanpoko jardueren arabera

Ondoko grafiko honetan erantzun zuzenen batez besteko portzentajeak azaltzen dira, edukien arabera, ingeles-ikaskuntzako eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzten edo ez kontuan izanik. Jarduera-mota hori egiten duten ikasleek emaitza hobekak lortzen dituzte ebaluatu diren eduki guztietan.


Emaitzak edukien arabera, ingeleseko eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzten kontuan hartuta.



Edukien arabeko emaitzak, ikaskuntza hasten deneko adinaren arabera


Honako grafiko honetan ingelesa sei urte baino gutxiagorekin ikasten hasten diren ikasleek lortutako emaitzen eta EAEko batez besteko portzentajeen arteko konparazioa. Ikasle horien batez bestekoa, gutxi gorabehera, erkidegoko batez bestekoa baino %10 altuagoa da entzumenean, irakurmenean, idazmenean eta hizkuntzari buruzko hausnarketan; alderdi soziokulturaletan, berriz, diferentzia hori txikiagoa da, hots, %5ekoa. Ikasle horientzako batez besteko orokorra ere EAEko batez bestekoa baino %10 altuagoa da.

Emaitzak edukien arabera, ingelesa 6 urte baino gutxiagorekin ikasten hasten diren ikasleengan.



Hurrengo grafiko honek erakusten du nola IET puntuazioa areagotzen den heinean ikasketa unibertsitarioak ikasteko asmoa duten ikasleen portzentajea handiagoa den. Horrela, puntuazio altuenean, hots, 350-400 puntuazioan, ia ikasleen %100 da.

Erdi-mailako edo goi-mailako ikasketa unibertsitarioak egin nahi dituzten ikasleek, IET puntuazioaren arabera



Ikasleen galdera-sorten emaitzak

Ikasleek ingelesaren ikaskuntzarekin lotutako zenbait alderdiri buruzko galdera-sortak bete zituzten. Horietan, ikasleek beren iritzia eman behar zuten.

Jarraian galdera-sorta horretako galdera esanguratsuenen emaitzak aztertuko dira.

Ikasketa asmoak

Goi-mailako ikasketak gauzatzeko asmoa duten 2. DBH-ko ikasleek emaitza altuenak lortu dituzte proban. Honako taulak ikasleen asmoak jasotzen ditu, IET puntuazioaren arabera. Asmo horiek altuagoak dira IET puntuazioa areagotzen den heinean. Era berean, aldagaiaren kategoria bakoitzarentzako eta IET puntuazio-tarte bakoitzarentzako subjektu-kopurua adierazten da. Ikusi daiten kasu gehienak, 492, 250 eta 350 puntu arteko tartean kontzentratzen dira. Kontuan hartzekoa da, halaber, IET puntuazio altuenean, 350-400 puntu, kokatzen den kasu-kopurua, 162.


IET	Ikasleak guztira	DBH eta erdi-mailako heziketa-zikloak		LOGSE Batxilergoa, eta goi-mailako heziketa-zikloak		Erdi-mailako edo goi-mailako ikasketa unibertsitarioak	
		Portzentajea	K	Portzentajea	K	Portzentajea	K
100-150	8	%100	8	-----	----	-----	----
150-200	66	%71,21	47	%15,15	10	%13,64	9
200-250	232	%50,86	118	%20,26	47	%28,88	67
250-300	492	%18,09	89	%19,72	97	%62,20	306
300-350	447	%3,80	17	%7,83	35	%88,37	395
350-400	162	-----	----	%0,62	1	%99,38	161

Ingeleseko etxerako lanak

Ikasleen %92k dio ingeleseko etxerako lanak edo egitekoak bidaltzen dizkiotela; hala ere, ikastetxe horietako batzuetan, ikasle batzuek, %8ak gutxi gorabehera, ez dutela ingeleseko etxerako lanik diote.

Honako grafiko honek IET puntuazioa erakusten du, etxerako lanak edo egitekoak egiten dituzten kontuan izanik.

IET puntuazioa, etxerako lanak egiten diren kontuan hartuta



Grafikoan askoz ere errendimendu altuagoa ikusten da etxerako lanak egiten dituzten ikasle horien artean.

Ingelesa ikasgelatik kanpo praktikatzea


Jarraian ikasleek ikasgelatik kanpo, hurrengo egoera hauetan, ingelesa erabiltzeari buruz duten iritzia erakusten da: telebista ingelesez ikustea, ingelesez idatzitako aldizkari edo egunkariak irakurtzea, senitartekoekin ingelesez hitz egitea, lagunekin ingelesez hitz egitea, Interneten nabigatzea ingelesezko txatetan parte hartuz, multimedia materiala erabiltzea eta abestiak entzutea. Taulak portzentajeak islatzen ditu, ikasleek "inoiz" praktikatu ez dutela esaten dutenean edota ikasleek "askotan" praktikatzen dutela diotenean:

Ikasleek zein maiztasunekin erabiltzen dute ingelese ikasgelatik kanpo	Inoiz ez %	Askotan %
Telebista ingeleseko programak ikusteko	52,1	2,9
Ingeleseko liburu edo aldizkariak irakurtzeko	36,9	2,8
Ingeleseko abestiak entzuteko	7,6	50,3
Senitartekoekin, lagunekin eta abarrekin hitz egiteko	55,2	2,9
Interneten nabigatzeko, ingeleseko txatetan parte hartzeko	63,8	5,2
Ingeleseko multimedia materiala erabiltzeko (DVDak, CDak, bideoak eta abar).	33,1	11,2

Jarduera ohikoenak ingelesez dauden abestiak entzutea da, %50,3arekin. Ondoren, multimedia materialaren erabilera dago, %11,2 batekin. Gainerako erabilerak oso minoritarioak dira.

Ondoko grafiko honek IET puntuazioaren emaitzak erakusten ditu, aldagai bakoitzarentzat, ingelesaren erabilera-maiztasuna "inoiz ez" edo "asko" den kontuan izanik.

Emaitzak ingelesaren praktikaren arabera ikasgelatik kanpo



IET puntuazioari dagokionez, ikasle horien artean dauden diferentziak oso esanguratsuak dira aldagaiko kategoriaz guztietarako. Bi aldagaien, hots, IET emaitzen eta ikasgelatik kanpo ingeleseko praktikatzaren arteko korrelazio-indizea esanguratsua da %99an, 0,349ko balioarekin Pearsonen korrelazio-koefizientean.

Ingelesa ikasgelan erabiltzea


Jarraian, irakasleak ingeleseko ikasgela barruan, ikaslearen iritziz, zein portzentajetan erabiltzen duen erakutsiko da.

Maiztasuna	Inoiz ez	Gutxitan	Noiz behinka	Nahiko maiz	Askotan
Irakasleak ingelesez hitz egiten du eskola osoan zehar	%10,3	%10,8	%16,4	%26,1	%36,5

"Nahiko maiz" eta "askotan" kategoriatako portzentajeak dira altuenak, eta horrek suposatzen du, bien artean, %62,6tan irakasleak ingelesez hitz egiten duela eskola osoan zehar.

Hurrengo grafikoak ikasleen IET puntuazioak erakusten ditu, irakasleak ikasgela barruan egiten duen ingeles-erabileraren maiztasunaren arabera.

IET puntuazioa irakasleak ikasgela barruan egiten duen ingeles-erabileraren arabera



Korrelazio bat dago ikasleen emaitzen eta irakasleek beti ingelesez hitz egiten duten eskolen artean. Bi aldagaien arteko korrelazio-indizea, hau da, IET emaitzen eta irakasleak eskola osoan zehar ingelesez hitz egitearen arteko korrelazio-indizea, esanguratsua da %99an, 0,237ko balioarekin Pearsonen korrelazio-koefizientean.

Irakasleak ikasleek eskolatan ingelesez egitea sustatzen du


Honako taulan erakusten da ikasleen iritziz irakasleek zein maiztasunekin sustatzen duten eskolan zehar ingelesez hitz egitea.

Maiztasuna	Inoiz ez	Gutxitan	Noiz behinka	Nahiko maiz	Askotan
Irakasleak eskolan zehar ingelesez hitz egitera animatzen gaitu	%10	%14,3	%25,1	%23,3	%26,6

Kasuen %50ean, irakasleek "nahiko maiz" eta "askotan" sustatzen dituzte ikasleak eskolatan zehar ingelesez hitz egin dezaten.

Honako grafiko honetan maiztasun horren eta ikasleen IET puntuazioaren arteko harremana erakusten da.

IET puntuazioa, irakasleek ikasleek eskolatan zehar ingelesez hitz egitera sustatzen duteneko maiztasunaren arabera



Irakasleek ikasleek eskolatan zehar ingelesez hitz egitea hainbat esku-hartzeren bidez sustatzen dute. Esku-hartze horiek erdi-mailako eta goi-mailako emaitzak dituen korrelazio bat erakusten dute.

Irakasleak ikaslearen ahalegina kontuan hartzen du, eta bere iritzia aintzat hartzen du ikasgelan egiten diren jarduerari dagokienez.


Honako taula honek erakusten du irakasleek zenbateko maiztasunarekin hartzen duten kontuan ikaslearen ahalegina, nola animatzen duten ikaslea ingelesa ikasten jarraitzea, eta zenbatetan hartzen duten aintzat jarduerak hautatzerakoan ikasleek duten iritzia, betiere ikaslearen iritziz.

Maiztasuna	Inoiz ez	Gutxitan	Noizbehinka	Nahiko maiz	Askotan
Irakasleak ahalegina kontuan hartzen du, eta ingelesa ikasten jarraitzea animatzen gaitu	%11,1	%12,7	%22,4	%24,9	%27,9
Irakasleak kontuan hartzen du gure iritzia eskolan egin beharreko jarduerak hautatzerakoan	%16,8	%18,9	%27,9	%21	%13,1

“Nahiko maiz” eta “askotan” kategoriatan biltzen dira kasuen %52. Gutxi gorabehera maiztasun horrekin hartzen du kontuan irakasleak ikaslearen ahalegina, eta ingelesa ikasten jarrai dezan animatzen du.

Ikasleek %28k adierazten dute “noizbehinka” besterik ez dela aintzat hartzen beren iritzia jarduerak hautatzerakoan, eta %34k bakarrik uste du beren iritzia “nahiko maiz” edo “askotan” hartzen dela kontuan. Ikasleek %35ak, berriz, jarduerak hautatzerakoan bere iritzia “inoiz ez” edo “gutxitan” hartzen dela aintzat uste du. Honako grafiko honek IET puntuazioa erakusten du, irakasleek ikaslearen ahalegina zein maiztasunekin hartzen duten kontuan eta jarduerak hautatzerakoan kontuan hartzen duen aintzat izanik.

IET puntuazioa ondoko hauen arabera: irakasleak ikaslearen ahalegina zein maiztasunekin hartzen du kontuan, eta jarduerak hautatzerakoan bere iritzia kontuan hartzen den



Bi aldagai horietako IET puntuazioak oso antzekoak dira “gutxitan, noizbehinka, nahiko maiz eta askotan” kategoriatan; 285 eta 288 puntu artekoak. Horrek adierazten du ikaslearen emaitzek ez dutela erakusten erlazio zuzenik irakaslearen jarrerarekiko, eta EAEko batez bestekoaren inguruan mantentzen dira. EAEko batez bestekoa 283 puntukoa da IET eskalan. Hala ere, zenbait esku-hartzeetan, ikaslearen iritziz, irakasleak ez du inoiz kontuan hartzen ikaslearen ahalegina, ez die animatzen ingelesa ikasten jarraitzea eta beren iritzia ez da aintzat hartzen ikasgelan egiten dituzten jarduerak hautatzerakoan. Esku-hartze horietan, batez besteko emaitza baxuagoak, hau da, hurrenez hurren 268 eta 275 puntu, dituen korrelazio bat erakusten da.


Irakasleak azaldu egiten du, eta ikasleek parte hartu egiten dute

Honako taula honek erakusten du zenbaterainoko maiztasunarekin azaltzen duen irakaslearen eta parte hartzen duten ikasleek.

Maiztasuna	Inoiz ez	Gutxitan	Noizbehinka	Nahiko maiz	Askotan
Irakasleak azaldu egiten du eta guk eskolatan parte hartzen duguz	%4,9	%11,8	%29,8	%31,8	%20,4

“Nahiko maiz” eta “askotan” kategoriek maiztasunaren %52 biltzen dute. Aipagarria da, baita ere, “noizbehinka” kategoriak erantzunen indize altu bat, %30ekoa, izatea.

IET puntuazioa, ondoko maiztasun honen arabera: irakasleak azaldu egiten du eta ikasleek parte hartu egiten dute



Zenbait esku-hartzeetan, gehienetan irakasleak azaldu egiten du eta ikasleek parte hartu egiten dute. Esku-hartze horietan batez besteko emaitza altuenekiko, hau da, IET eskalako 290 puntuekiko, korrelazio bat ikusten da. Ikusi da, baita ere, zenbait esku-hartzeetan, ikasleen iritziz, irakasleak azaldu egiten dutela eta ikasleek ez dutela inoiz parte hartzen. Kasu horietan, emaitzak baxuagoak dira, 259 punturekin.

ONDORIOAK

Berariazko ikaskuntzei buruzko ondorioak

- **Eduki-moten arabera**, emaitzarik altuena entzumenean eskuratzen da, erantzun zuzenen %72ko batez bestekoarekin. Emaitzarik baxuena, berriz, idazmenean eskuratzen da, %53arekin, EAEko batez bestekoa proba osorako %62koa den bitartean. Irakurmeneko eta hizkuntzari buruzko hausnarketako emaitzak EAEko batez bestekotik gertu daude, erantzun zuzenen %59 eta %58arekin hurrenez hurren. Azkenik, alderdi soziokulturaletan, 2. DBHko ikasleek erantzun zuzenen %66ko portzentajea eskuratu dute.

Eduki-mota desberdinetako emaitzak koherenteak dira horien zailtasun-mailarekiko. Idazmena trebetasun konplexu bat da; idatzi ahal izateko, gramatika, hiztegia, ortografia, sintaxia, tes-tuinguruarekiko egokitasuna, sormena eta abar bezalako alderdiak aldi berean erabili behar dira. Nolanahi ere, trebetasun horretako emaitzek, neurtu diren gainerako eduki-motek bezala, erantzun zuzenen %50eko portzentajea gainditzen dute.

- **Mintzamenaren proba** lagineko ikasleen (118 ikasle) %5,4k bakarrik egin du. Proba horretan neurtu diren alderdi desberdinetan honako emaitza hauek lortu dira 5 punturen gainean: elkarrekintzan 2,78 puntu, ahoskeran 2,73, gaitasun gramatikalean 2,36, eta hiztegia eta kohesioan 2,46 puntu. Ikasle horiek, idazmeneko proban, 284 puntu eskuratu zituzten IET eskalan. Puntuazio hori lagin osoak eskuratutakoaren (283 puntu) oso antzekoa da.

- **Irakurmenaren** proban, erantzun zuzenen %59ko portzentajearekin, lau ulermen-mota baloratu ziren. Ulermen-mota horietan ondoko emaitzak lortu ziren: %68 berariazko informazioaren ulermenean, %41 inferentzian, %75 loturan eta %56 berrantolaketan. Inferentzia bidezko ulermena da bloke honetan zailtasun handiena duen trebetasuna, EAEko batez bestekoa baino 18 puntu portzentual gutxiago dituen portzentaje batekin. Loturaren bidezko ulermena da emaitzarik altuena lortzen duena eduki-bloke honetan, EAEko batez bestekoa 16 puntu portzentualetan gaindituz.

- **Idazmenean**, EAEko batez bestekoa erantzun zuzenen %53ko portzentajekoa da. Idazmeneko ondoko forma hauek baloratu ziren: zuzentasuna, %52ko portzentajearekin; eta egokitasuna, %71ko batez bestekoarekin. Horiez gain, bi jardueramota baloratu ziren: informazio-transferentziaren bidezko ekoizpena, %54ko portzentajearekin; eta ikus-gakoez lagundutako ekoizpena, %49ko batez bestekoarekin.

- Probak **idazmeneko proba** ireki bat barne hartzen zuen. Proba hori baloratzeko ondoko irizpide hauek hartu ziren kontuan: hitz-kopurua guztira, zuzentasun ortografikoa, zuzentasun gramatikala, balorazio orokorra eta sormena/orijinaltasuna. Alderdi horiek neurtzeko irizpide bakoitzarentzat maila desberdinak zehazten zituzten eskalak erabili ziren. Eskala horiek txosten honetako 33-36 orrialdeetan ikusi daitezke.

- **Hizkuntzari buruzko hausnarketan** erantzun zuzenen batez bestekoa %58koa izan zen. Bloke horretan eduki-mota desberdinak aplikatzeko gaitasuna baloratu zen: morfologikoak, erantzun zuzenen %66arekin; semantikoak, %48arekin; eta sintaktikoak, erantzun zuzenen %57ko batez bestekoarekin.

- **Alderdi soziokulturalen** atalari dagokionez, erantzun zuzenen %66ko batez bestekoarekin, bi eragiketa kognitibo baloratu dira: ezagutzea, erantzun zuzenen %64arekin; eta inferitza, erantzun zuzenen %85arekin.

- Ingeleseko **eskolaz kanpoko** jarduerak egiten dituzten ikasleek emaitza hobek lortzen dituzte ebaluatutako eduki-bloke guztietan. Jarduera-mota horiek egiten ez dituzten ikasleek lortzen dituzten emaitzekiko diferentziak %11tik, alderdi soziokulturaletan, %16ra, hizkuntzari buruzko hausnarketan, eta %17ra, idazmenean, doaz. Bi taldeen arteko batez besteko diferentzia %14koa da.

- Ingelesaren **ikaskuntza** 6 urte baino gutxiagorekin hasten duten ikasleek emaitza hobek lortzen dituzte eduki-bloke guztietan. Diferentzia nabarmenenak idazmenean, batez bestekoa baino %12 altuagoa, eta hizkuntzari buruzko hausnarketan, %9 altuagoa, ematen dira.

Lan-prozesuei buruzko ondorioak

Jarraian erakusten diren ondorioak ikasleen galdera-sortetatik eskuratutako datuetatik lortu dira. Emaitza horiei horien eta proban lortutako emaitzen arteko korrelazio eta konparazio-azterke-

tak aplikatu zaizkie. Galdera-sortako zenbait erantzunen eta ikasle-leen emaitzen artean erlazioren bat emateak ez du suposatzen **kausalitatea**. Hau da, linealki lotuta daudela adierazten du, baina horrek ez du esan nahi erantzun horiek emaitzen kausa direnik. Adierazitako azterketek erakusten dutena da galdera-sortako zenbait erantzunen eta emaitzen arteko datuek antzeko joera dutela.

- Goi-mailako ikasketak egin nahi dituen ikasleak emaitza altuagoak lortzen ditu proban. 34. orrialdeko grafikoak erakusten du nola IET puntuazioa areagotzen den heinean "erdi-mailako edo goi-mailako ikasketak" kategoriaren zutabeak gerok eta kasu portzentaje handiagoa biltzen du.
- Ingeleseko etxerako lanak egiten dituzten ikasleek emaitza altuagoak lortzen dituzte proban, IET eskalako 288 punturekin, etxerako lanik egiten ez duten horiek lortzen dituzten 248 puntuen aldean.
- Eskolaz kanpoko orduetan ingelesa praktikatzeko aukera gehien duten ikasleek emaitza altuagoak lortzen dituzte.
- Irakasleek "nahiko maiz" edo "askotan" eskola osoak ingelesez ematen dituztenean, ikasleek emaitza hobeak lortzen dituzte.
- Irakasleek klasean zehar "nahiko maiz" edo "askotan" ikasleak ingelesez hitz egitera animatzen dituztenean, emaitzak EAEko batez bestekoa baino altuagoak dira.
- Irakasleek ikaslearen ahalegina kontuan hartzen ez dutenean, irakasleek ikasleak ingelesa ikasten jarraitzea animatzen ez dituztenean, eta ikasgelan gauzatzen diren jarduerak hautatzerakoan ikaslearen iritzia kontuan hartzen ez denean, ikasleek lortzen dituzten emaitzak EAEko batez bestekoaren azpitik daude, IET eskalako 275 eta 268 punturekin hurrenez hurren.

HAINBAT ITEM

Jarraian proban erabilitako zenbait item erakusten dira. Horietako bakoitzean erantzun zuzenen portzentajea adierazten da, eta IET errendimendu-eskalan lortutako emaitzan aztertzen dira.

Entzumena

1. itema. Entzumena

Lehendabiziko adibide honetan beren jolas gogokoenaz hitz egiten duten bi lagunen arteko elkarrizketatik abiatuta formulatu den item bat aztertzen da.

[...]
-What games have you got?
-Not many, just Mark Bros and Pocket monsters.
[...]

Jarraian, honako hau galdetzen zen:


He's got...
Six games a
Two games b
110 games c
Lots of game..... d

Item hori behar bezala erantzun zuten ariketa horri zegokion koardernoa bete zuten ikasleek, hau da, gutxi gorabehera lagin osoaren laurdenaren, %22,3k. Erantzun zuzenen indize baxua duen item bat da. Hori dela eta, lehendabiziko analisi batetan, item zaila dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala honako hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%0,0	%20,2	%10,6	%14,9	%31,8	%77,4

Errendimendu-eskalako 100 eta 150 puntu artean kokatzen diren ikasleek ez zioten item horri behar bezala erantzun. 150 puntu eta 200 puntu artean kokatzen diren ikasleetatik %20,2k behar bezala egin zuten item hori. 200 eta 250 puntu artean kokatzen diren ikasleetatik %10,6k ondo erantzun zuten. 250 eta 300 puntu artean kokatutako ikasleetatik %14,9k behar bezala erantzun zuten. Azkenik, azkeneko bi kategoriatan ondo erantzun zuten ikaslearen portzentajeak altuenak dira: ikasleek %31,8 300 eta 350 puntu bitartean dago, eta ikasleek %77,4 350 eta 400 puntu artean kokatzen da; hau da, ingelesean gaitasun handiena duten ikasleek bakarrik erantzun zuten behar bezala item hori.



2. itema. Entzumena

Beste item bat bi lagunen arteko elkarriketan oinarritzen zen.

[...]
 -And then, in the afternoon, we're all meeting up at the Burger Restaurant [...]

Jarraian, ondoko hau galdetzen da:


In the afternoon, they are meeting ...
 at a big restaurant a
 at the cinema b
 at a Burger restaurant c
 at a school entrance d

Item horri zegokion koadernoan bete zuten ikasleen, hau da, gutxi gorabehera lagin osoaren laurden baten %71,4k behar bezala erantzun zion itemari. Erantzun zuzenen indize ertaina duen item bat da, eta, hori dela eta, lehendabiziko azterketa batetan, item erraz bat dela esan dezakegu.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%27,2	%20,9	%48,8	%66,7	%92,2	%97,9

100-150 mailako %27,2 behar bezala erantzun zion itemari, eta percentaje hori lagin osoko ikasleen kopuru oso murrizari dagokio.



3. itema. Entzumena

Honako itema Britainia Handian urtero ospatzen den ekitaldi bati, hots "Grand National" delakoari buruzko elkarriketa batetatik abiatuta formulatzen zen.

[...]
 -What is the Grand National?
 -The Grand National is a horse race. It is the most famous race in Britain [...]

Ondoren, ondoko hau galdetzen zen:



The Grand National is a race for...
 men a
 women b
 dogs c
 horses d

Item hau behar bezala erantzun zuten koadernoan bete zuten ikasleetatik, hau da, lagin osoaren laurdenetik, %95,1ek. Erantzun zuzenen indize altu bat duen item bat da. Hori dela eta, lehendabiziko azterketa baten ondoren, item oso erraza dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%27	%59,8	%89,9	%98,5	%99,3	%100

Taulak erakusten du nola ikasleek, 200 puntuko emaitza batetatik abiatuta, orokorrean ondo erantzuten dioten item honi.



Irakurmena

1.itema. Irakurmena

Lehendabiziko adibide honetan, futbol-talde batetan jokatzeko duen neska bati buruzko testu batetik formulatutako itema aztertzen da.

[...]

Every Saturday I went to the park to watch the boys playing matches. They finally asked me to join them. I was really pleased to be part of a team [...]

Jarraian, ondoko hau galdetzen da:

She was to be part of a team.

- unhappya
- sad b
- glad c
- Serious..... d

Item hori behar bezala erantzun zuten ariketa horri zegokion koaderno batean zuten ikasleek, hau da, gutxi gorabehera lagin osoaren laurdenaren, %40,7k. Erantzun zuzenen indize baxua duen item bat da. Hori dela eta, lehenabiziko analisi batetan, item zaila dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%0	%17,1	%15,6	%25,4	%59,4	%93,1

2. itema. Irakurmena

Bigarren adibidean bi eskola-lagunen arteko elkarrizketa idatzitik abiatuta formulatutako item bat aztertzen da.

-Hi Lucy. How are you? I didn't see you at the school restaurant today. Where were you?
-I ate a vegetable sandwich and some fruit in the library. [...]

Jarraian, ondoko hau galdetzen zen:


Where did Lucy have lunch?

- In the librarya
- At the school restaurant b
- At home c
- She didn't have lunch..... d

Item hau behar bezala erantzun zuten koaderno batean zuten ikasleek, hau da, lagin osoaren laurdenetik, %73,7k. Erantzun zuzenen indize ertain bat duen itema da. Hori dela eta, lehenabiziko azterketa baten ondoren, item erraza dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%44,7	%19,4	%40,3	%75,7	%94,2	%94,9




How / travel? Plane.

Heby plane and stayed in a tent

Item hori behar bezala erantzun zuten ariketa horri zegokion koa- dernoia bete zuten ikasleen, hau da, gutxi gorabehera lagin osoa- ren laurdenaren, %29,6k. Erantzun zuzenen indize baxua duen item bat da. Hori dela eta, lehendabiziko analisi batetan, item zaila dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%0	%0	%3,4	%16,3	%50,5	%70,6



3. itema. Irakurmena

Hirugarren adibidean kartel batetatik abiatuta formulatutako itema aztertzen da:

Nori zuzendua dago ohar hau?


NO PHOTOGRAPHS

- people at the swimming pool a
- people in a supermarket b
- people in a museum c
- people at the bus stop d

Item hau behar bezala erantzun zuten koa- dernoia bete zuten ikas- leetatik, hau da, lagin osoaren laurdenetik, %88k. Erantzun zuze- nen indize altu bat duen itema da. Hori dela eta, lehendabiziko azterketa baten ondoren, item oso erraza dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%0	%29,4	%73,4	%93,8	%99,5	%98,8



Idazmena

1. itema. Idazmena

Lehendabiziko adibide honetan, ikasleek, ondoren testu bat osat- zeko, Mike izeneko mutil baten oporraldiei buruz irakurri behar zuten fitxa batetatik abiatuz formulatutako item bat aztertzen da.

2. itema. Idazmena

Bigarren adibidean, ikasleek, ondoren testu bat osatzeko xedez, pelikula bati buruz irakurri beharreko fitxa batetan oinarritutako itema aztertuko da.

Title: Titanic


Directed by: James Cameron.

This love story is by James Cameron

Item hau behar bezala erantzun zuten koa- dernoia bete zuten ikas- leetatik, hau da, lagin osoaren laurdenetik, %60,4k. Erantzun zuzenen indize ertaina duen itema da. Hori dela eta, lehendabizi- ko azterketa baten ondoren, item erraza dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%0	%5,4	%19,0	%56,9	%87,4	%93,9



3. itema. Idazmena


Hirugarren adibidean azterzen den itema gutun bat zen. Ikasleak gutun hori osatu egin behar zuen, marrazkiak hitzengatik aldatuz.

I am studying 2nd ESO at a
which is near home.

Item hori behar bezala erantzun zuen koadernoan bete zuten ikasleetatik, hau da, lagin osoaren laurdenetik, %75,6k. Erantzun zuzenen indize altua duen itema da. Hori dela eta, lehendabiziko azterketa baten ondoren, item oso erraza dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%0	%41,1	%64,1	%76,6	%79,3	%96,3



Hizkuntzari buruzko hausnarketa

1. itema. Hizkuntzari buruzko hausnarketa.

Lehendabiziko adibidean "Oxford Summer School" izeneko testu batetatik abiatuta formulatutako item bat aztertu da:

[...]

Accommodation

Pupils can live at school or with a family [...]

Ondoren, ondoko hau galdetzen zen:

Pupils live at the school.

have toa

decide if they want tob


must.....c

need to.....d

Item hori behar bezala erantzun zuen koadernoan bete zuten ikasleetatik, hau da, lagin osoaren laurdenetik, %49k. Erantzun zuzenen indizea ertaina edo baxua da. Hori dela eta, lehendabiziko azterketa baten ondoren, zailtasun-maila ertaineko itema dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%0	%27,4	%24,6	%36,8	%63,9	%95,2



2. itema. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

Bigarren adibidean "An English Town" izeneko testu batetatik abiatuta formulatutako item bat azterzen da. Testu horrek hutsuneak ditu, ikasleak aukera zuzena hautatuz osatu ahal izateko.

Many families Two children and the mother and father usually work.

hasa

haveb

isc



are.....d

INGELES ARLOAREN EBALUAZIOAREN TXOSTENA

Item hori behar bezala erantzun zuen koadernoan bete zuten ikasleetatik, hau da, lagin osoaren laurdenetik, %67,5ek. Erantzun zuzenen indizea ertaina edo altua da. Hori dela eta, lehendabiziko azterketa baten ondoren, item erraza dela esan daiteke.

Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%0	%28,5	%51,8	%63,1	%78,2	%95,6



Alderdi soziokulturalak

Honako adibide honetan, futbol-talde batetan jokatzeko duen neska bati buruzko testu idatzian oinarritutako itema aztertzen da.

Soccer is also called...

- basketball a
- handball..... b
- football c
- volleyball..... d

Item hori behar bezala erantzun zuen koadernoan bete zuten ikasleetatik, hau da, lagin osoaren laurdenetik, %58,9k. Erantzun zuzenen indizea ertaina da. Hori dela eta, lehendabiziko azterketa baten ondoren, item erraza dela esan daiteke.

Orokorrean neskek mutilek baino puntuazio hobekak lortzen badi-tuzte ere, item honetan, erantzun zuzenen portzentajea, sexuen arabera, ondoko hau da: %71,4 mutiletan, eta %48,1 nesketan. Itemaren errendimendu-eskala ondoko hau izan zen:

100-150	150-200	200-250	250-300	300-350	350-400
%0	%22,3	%40,0	%54,9	%68,7	%89,1